



GAZTEEN HIZKUNTZA ERABILERAREN PERSPEKTIBA ETA PROSPEKTIBA

Ondorioak eta aurrera begirako ildoak

2008ko martxoan
ebete hizkuntza-zerbitzuak
www.ebete.org

Aurkibidea:

1.- Abiapuntua	2
2.- Proiektuan jardunaldiak bitarte landutakoaren laburpena	3
2.1- Esperientzien eta ikerketen bilketa		
2.2- Perspektibari eta prospektibari buruz jasotako ideiak eta iritziak		
2.3- Jardunaldietako dinamikarako proposamen zehatzak		
2.4- Jardunaldietan jasotako ideien zerrenda		
2.5- Jardunaldietako dinamikatik ateratako ideia nagusiak		
3.- Aurrera begirako ildoen proposamena	14
3.1- Sarrera		
3.2- Euskaldunon komunitatea eta mezuak		
3.3- Interbentzioak		
3.4- Tresnak eskaintzea		
3.5- Elkarlana eta goxotasuna		
3.6- Sormena		

1 – Abiapuntua

Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba proiektua lantzen ari dira Soziolinguistika Klusterra, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa eta Urtxintxa eskola.

Proiektu horren barruan, lehenik eta behin, euskararen erabileran inguruan Euskal herrian zehar egindako hainbat ikerketa eta esperientziren berri jaso zuten.

Ondoren, aditu talde batekin, bilketa horretatik abiatuz perspektibari eta prospektibari buruzko hainbat ideia bildu ziren.

2008ko otsailean Soziolinguistika Klusterrak antolatu zuen *Geroa bermatzeko, oraina ezagutu* jardunaldietan *Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba* proiektuari buruzko tailer bat egin zen. *ebet* *hizkuntza-zerbitzuek* dinamizatu zuten tailerra, eta hainbat ideia jaso ziren tailer horretan.

Hori guztia oinarri hartuz, dokumentu honetan *ebet*etik aurrera begirako proposamen batzuk egin ditugu. Proposamen xumeak dira eta ez daude garatuak, baina norabidea zehazteko edo, gutxienez, eztabaida bideratzeko balio izatea nahi da.

Proposamen horiek egiteaz gain, proiektuan orain arte landutakoaren laburpena ere jasotzen da:

- Esperientzien eta ikerketen bilketan jasotakoa.
- Perspektiban eta prospektiban aipatzen dena.
- Jardunaldietako dinamikarako prestatutako proposamen zehatzak.
- Jardunaldietako dinamikatik ateratako ideien zerrenda.
- Jardunaldietako dinamikatik ateratako ideia nagusiak.

2– Proiektuan jardunaldiak bitarte landutakoaren jarraipena

2.1– Esperientzien eta ikerketen bilketa:

Ikerketak

12 fitxa jaso dira.

Gehienak udalerrri mailakoak dira: Oñatiko gazteen euskararekiko jarrerak, Pasaiaiko elebitasunari buruzko inkesta...

Esparru geografiko zabalagoa hartzen dute: Arrue programa, Euskararen azterketa arloka eta Etorkizuna aurreikusten 99. Gaztetxoak eta euskara.

Askotan esparru edo gai zehatzak ikertzen dira: Eskola giroan (Arrue), Aisialdian (Elgoibar), hizkuntza jokaerak (Pasaia eta Oñati), SMS-ak (Zestoa)...

Ikerketa guztien helburua gazteen normalizaziorako lan ildoak eta irizpideak zehaztea da.

Esperientziak

106 fitxa jaso dira.

Gehienak 12–16 urte tartekoei zuzenduak. Oso esperientzia berriak dira gehienak.

Helburu nagusiak: Euskararen erabileran eragitea, euskararen ezagutzan eragitea eta euskararekiko motibazioa sustatzea.

Sailkapen eredu bat, 10 esparrutan banatuta:

- 1– Udalekuak eta egonaldiak
- 2– Kultur ekintzak eta ikuskizunak
- 3– Eskolaz kanpoko ekintzak
- 4– Ikastetxeak ikastorduz kanpo antolatutako ekintzak
- 5– Ekipamenduak
- 6– Formazioa
- 7– Hedabideak
- 8– Lehiaketak
- 9– Irakurketa, idazmena eta ahoskera lantzekoak
- 10– Bereziak edo “izendunak”: Kuadrillategi, Asteburuetan.com...

Metodologia aisian oinarritzen da: Euskara gozamenarekin eta askatasunarekin lotzen da, euskarari erabilgarritasuna eta erakargarritasuna emanaz.

2.2- Perspektibari eta prospektibari buruz jasotako ideiak eta iritziak:

Esperientzien perspektiban aipatzen dena:

- Hainbat agenteek sortutakoak dira, baina batez ere administrazioaren esku daude.
- Gaztetxoan esperientzietan haurren esperientzietan baino gabezia handiagoak daude, urrats gutxiago eman dira.
- Helburu altuegiak eta sakonegiak jartzen dira ekintza xumeetarako.
- Aisiako metodologia egokia da gozamena eta erakargarritasunarekin lotzen baita.

Ikerketen perspektiban aipatzen dena

- Ikerketak ez dira asko.
- Ondorioak ateratzea zaila izaten da gazteena aldaketarako joera duen multzoa delako.
- Bakoitza bere txokotik ari da, argazkiak ateratzen dira baina alderatu gabe.
- Esperientziak ez dira erabiltzen ikerketak egiteko.

Esperientzien prospektiban aipatzen dena:

- Esperientzien zabalkunderako eta elkartrukerako sistema behar da.
- Administrazioarekin elkarlana beharrezkoa da. Baliabideak ugaritu behar ditu administrazioak.
- Oinarri teorikoetan eta metodologikoetan gabeziak daude.
- Ekintza eta ikerketa uztartu behar dira.
- Ebaluazio sistemak eta neurgailuak behar dira, prozesu osoak kontuan hartuko dituenak: errealitatearen azterketa, helburuak definitzea, lantzeko modua...

Ikerketen prospektiban aipatzen dena

- Adierazle sistema bat falta da
- Ikerketa kualitatiboak behar dira, ez soilik datuak irakurtzea
- Gidaritza bat behar da, bidea markatuko duen aditu taldea
- Ikerketa eta esperientzia arteko uztarketa behar da
- Lau bide: Corpora (gazte hizkera), Zeharkako bidea (gazte planak eta euskara planak uztartzea), euskara saldu (publizista profesionalak behar) eta kolektiboa kontuan hartu (erabileran aldaketa sortzera begira ekintzetan talde ikuspegia erabili).

2.3– Jardunaldietako dinamikarako proposamen zehatzak:

Proposamen hauen helburua ez da aurrera begirako ildoak definitzea, orain arte landutakoa kontuan hartuz eztabaida bideratzea eta ideia berriak jasotzea, baizik.

Ikerketei buruz

- Gidaritza talde bat osatu behar da, Euskal Herri osoko ikuspegia izango duena.
- Hainbat ikerketa jarriko dira abian, baina leku batean edo bestean egin, ondorioek Euskal Herri osorako balio beharko dute. Ikerketa asko behar dira, orain arte gutxi egin baitira.
- Horretarako adierazle sistema bat garatu behar da, denentzat egokia izango dena: erabileran izan duen eragina, jardueren egokitasuna...
- Hiru ikerketa bide izango dira lehentasunezkoak, guztietan ildo batzuk garatu beharko dira, eta benetan baliagarriak diren jakiteko, esperientzia errealean frogatuko dira:
 - o Gazte hizkera estandar bat lantzea eta hori hedatzeko bideak garatzea eta frogatzea.
 - o Euskararekiko mezuak lantzea publikista profesionalen laguntzaz eta mezu horiek hedatzeko bideak garatzea eta frogatzea.
 - o Kolektiboa oinarri izango duen (erabilera talde ikuspegitik lantzerantz begira) estrategiak garatzea eta frogatzea: liderren eragina, erreferenteen garrantzia...

- Euskara planak eta gazte planak lotzearen beharra ere aztertuko da, eraginkortasunari eta praktikotasunari begira.

Esperientziei buruz

- Gaztetxoen euskararen erabileran eragiteko esperientzia gehiago behar dira. Esperientzia berriak garatzen eta frogatzen egin behar da ahalegina.
- Esperientzia horiek guztiak gozamenean eta erakargarritasuna izan behar dute oinarri moduan.
- Egiten diren esperientzien berri emateko eta ondorioak elkartrukatzeko bideak jarriko dira.
- Esperientzia berri horietan oinarri teoriko eta metodologikoak garatzea izango da helburuetako bat, ikerketarekin uztartzeko ahalegina egingo da.
- Oinarri teoriko eta metodologikoen kasuan, ebaluazio sistemak garatzeari eta neurgailuak izateari emango zaio lehentasuna. Hor dago gabeziarik handiena.
- Euskaigintzan hurrekin eta gazteekin lanean ari diren edo aritzeko asmoa duten erakundeen ardura izango da proposamen hau garatzea. Administrazioari eskatuko zaio jokabide aktibo bat izatea eta batez ere behar bezalako baliabideak jartzea.

2.4– Jardunaldietan jasotako ideien zerrenda

Ikerketei buruz

Ikerketen beharra eta ezaugarriak

- Ikerketak badaude, nahikoak dira.
- Zaila da ikerketa globalik egitea EHn, egoerak ezberdinak baitira.
- Oso zaila da adierazle sistema bakarra sortzea, tokian tokikoa behar izaten baita.
- Ondorioak Euskal Herri osorako izatea ez da garrantzitsua, ez da arazoa.
- Komeni da ondorio orokorrak ateratzea, baina gero ingurura egokitu beharko lirateke.
- Ezin da proposamen honen aldeko ezer esan. Tipologikoki egin beharko litzateke ikerketa, ez geografikoki.
- Ikerketaren ezaugarriak berak izan beharko lirateke, hipotesi berak, lagin berak...
- Ikerketak egitea komeni da, *zer lortu nahi dugun* kontuan hartu behar da, eta *zer lortu dugun*.
- Nola konparatuko ditugu Euskal Herri mailan datuak, ikerketa ez da bada bateratua? Sistema bera erabili behar da, gero alderaketak egin ahal izateko.
- Ezin da ikerketa leku zehatzetara mugatu. Oso eremu txikietan ere desberdintasun handiak ikusten dira. Gainera ikerketa asko ez dira gero ezertarako erabiltzen eta egiten bada helburu zehatz batzuekin egin behar da gero erabili ahal izateko. Ikerketan gazteei lekua egin behar zaie, agian ez objektu bezala bakarrik, baita subjektu bezala ere. Gaztea ez da talde homogenea. Gazte tipologia desberdinak aztertu behar dira ikerketarako. Harreman sareen arabera.

Gazteengan eragiteari buruz:

- Ezin ditugu gazteak gidatu, hurbil egon behar dugu, hori bai.
- Bidea kuadrilla-tribua da.
- Gazte hizkera estandar bat sortzeak ez du lagunduko, agian eskualdeka egin beharko litzateke. Baina agian minimo batzuk zehaztu behar dira.
- Estandarizatzea akatsa da, zonaldea hartu behar da kontuan. Batua oso formala da, eta hotzegia. *Estandar* hitza da agian aldatu behar dena, *bizi* izena eman beharko litzaioke. Baina batasun bat beharrezkoa da.
- Hika ere zonaldeka erabiltzen da, baina lekuan lekukoa.

Gazte hizkera estandarri buruz:

- Gazte hizkera definitu? Nola? Zer da hori? Estandarra izan daiteke? Adituek landua? Edo gazteek egin behar dute?
- Gazte hizkera estandarrik ez. Hori ez dago inoren esku. Gazte hizkera aldakorra da, estandarra finkoa da. Kontradikzio bat da. Batua ez da erabilgarria gazteentzat.
- Gazte hizkera hainbat egoeretan behar dute: Nafarroa, Barakaldon...
- Gazte hizkera = gazteek erabiltzen dutena
- Zalantza: berez sortzen da edo hedabideen bidez hedatzen da?
- Proposamena: Hedabideak erabili
- Aurretik eredurik ez dutenek horren beharra sumatzen dute.
- Estandarra sortzeko; *gaur egun Markinako, edota Azpeitiko gazteek nola hitz egiten dute?* Hortik jo beharko genuke estandarra sortzeko.
- Gaztelaniarekin alderatuz, Burgoseko gazte baten eta Bilboko gazte baten gazte hizkera bera da.
- Gazte hizkera ez da eskolan ikasten, kalean ikasten da. Baina kalean ez badago, etxetik jasotzen ez delako, nondik jaso?
- Gazte hizkera zer den definitu behar da.
- Alde batetik ezinezkoa da eta gainera ez da komenigarria. Gazte hizkerak bizia behar du, herri bakoitzak edo ingurune bakoitzak berea behar du. Landu behar den gai bat da, hutsune handia dagoelako, baina gazteekin zuzenean egin beharreko zerbait da. Estandarra edo arautua, puskatzen egiten da gazte hizkera.

Gidaritza taldeari buruz:

- Gidaritza talde bat osatu behar da, baina ez ondorio berak lortzeko helburuarekin.
- Gazte kontseilu bat badago, zertarako sortu beste bat? Aisialdian dabilzanek zer eginkizun dute (Urtxintxa, Topagunea...)?
- Oso difusoa geratzen da. Bi talde egin beharko lirateke: Bat, *zer dagoen* aztertu beharko lukeena, eta hauek adituak izan beharko lirateke, eta bigarrenak *zer egin behar den* landu beharko luke. Azken honek parte-hartzailea izan beharko luke, eta komeniko litzateke gazteek ere bertan parte hartzea.
- Zaila da Euskal Herri osora iritsiko den talde bakar bat sortzea. Oso errealitate desberdineko herriak topatzen ditugu Euskal Herrian. Agian talde txiki desberdinak sortu daitezke, elkarren artean koordinatuz.

Mezuei eta publizistei buruz:

- Komunikabideen bidez eragin daiteke eta komikiak, fanzineak, mantxut, egaztea...
- Publizisten bidez mezuak ondo landu daitezke, mezu ezberdinak landu.
- Arriskutsua izan daiteke euskararekiko mezuak publizisten esku uztea.
- Euskara ez dago salgai, baina saldu behar da nolabait, eta orain arte ez dugu jakin izan hau ongi egiten, edo mezua egoki saltzen.
- Publizitatea gehigarri bat da baina garrantzitsua da.
- Publizistek arazoak dituzte euskararen inguruan gauzak sortzeko. Hala ere, oso positiboa izan daitekeela uste da. Agian euskararena zeharka landu beharreko mezua dela ikusten da.

Esperientziei buruz

1- Gazteentzako jardueri buruz ari gara, baina ez dira gazteak kontuan hartzen:

- Ez dakigu gazteek zer pentsatzen duten. Gazteak kontuan hartu gabe lanean aritzea proposatzen da.
- Gazteak ez dira bloke bat, aniztasuna dago bertan: adina, ezaugarriak...
- Gazteek berez dituzten sareetara jo behar da.
- Gazteen interesetik abiatu behar da. Baina:
 - o Berehala aspertzen dira, momentu batean balio duenak gero ez du balio...
 - o Gazteek nahi dutena da aske izatea, beraien txokoak edo lokalak izatea, eta han egotea.
 - o Gauzak “azkar” behar dituzte, berehala, oraina bizi dute. Gazteak oso aldakorrek dira.
 - o Haiekin lan egitea, inplikatzeari, oso zaila da. Konplizitatea lortzea zaila da, eta erraz galtzen da haiekiko lotura.
 - o Horregatik, gazteekin aritzen garenean malgutasuna ezinbestekoa da. Gazteekin egiten den guztiak malguta eta aldakorra izan behar du.
- Jende gaztea “manipulatzea” erraza da, denok ere kontsumista garelako.

2- Jardueri eta horien ezaugarriei buruz:

- Xirimiri efektua behar dugu, baina ba al ditugu nahiko baliabide horretarako?
- Ez da lehentasunezkoa ekintza berriak sortzea. Lehentasunezkoa da daudenak egokitzea eta etekina ondo ateratzea. Hutsuneak ikusten direnean, orduan sortu beharko dira berritzaileak.
- Gozamenean oinarritutako jarduerak behar dira, baina batez ere parte hartzaileen ikuspegitik, ez horrenbeste antolatzaileen ikuspegitik.
- Plan pilotuak baino proiektu global bat izan daiteke interesgarria. Leku batean balio duenak askotan ez du balio beste batean. Proiektu global hori herri-auzo bakoitzera egokituko da. Adibidez: herri-auzo bakoitzean lokal bat gazteentzat.

- Gazteen ezaugarriak kontuan hartuz, aisialdi antolatua erakargarria al da beraientzat?
 - o Naturaltasunik gabeko eskaintza batera jo dezakegu: ikertuegia, antolatuegia, adierazlez bete... Non dago gozamina?
 - o Boterea eman behar zaie. Ez dute gidaririk nahi, ardurak behar dituzte, erabakiak hartzeko aukera.
 - o Taberna eta beraien lonja edo lokaletako inplikazioa lortu behar da.

3- Hizkuntza-helburuak eta metodologia

- Oinarri teoriko eta metodologikoen beharra argi dago. Baina:
 - o Esperientzia bakoitzetik ezin da esku liburu bat sortu
 - o Teorizazioak eta metodologiak dedikazio gehiago eskatzen du eta baliabide gutxi jartzen dira.
- Helburuak malguak jarri behar dira, egoera soziolinguistikoaren arabera. Helburu xumeetatik hastea litzateke onena.
- Metodologia eta planifikazioa bai, baina sormena da gako nagusienetakoa.
- Gozamina eta erakargarritasuna bai, baina tresna moduan, ez helburu moduan.
- Lan praktikoa (esperientzia) eta ikerketa uztartzea ezinbestekoa. Kuadrillategi oso adibide ona da: ikerketa, malgutasuna, gazteen gune naturalak...
- Lidergoaren gaia garatzea bide interesgarria izan daiteke erabileran eragitera begira:
 - o Zein dira liderrak gazteen artean? Horietara jo beharko litzateke.
 - o Lidergoak erakarri behar dira, gaia landuz eta esperientzia bakoitzetik gauza interesgarriak aterez.
- Metodologia eta planifikazioak administrazioari begira egokiak izatea baino, hezitzaileentzat eguneroko lanerako egokiak izan behar dute: tresna zehatz eta praktikoen bila.
- Bidea ez da goitik beherakoa izan behar, zeharkakoa edo behean hasitakoa baizik. Kale-hezitzailearen figura kontuan hartu behar da, eredia hor dago.
- Administrazioak koherentzia erakutsi beharko luke, euskaraz bizitzeko erreferenteak edo aukerak eskaini.

4- Jardueren antolaketa

- Proposamenari goxotasuna falta zaio. Pertsonen eta erakundeen arteko elkarlanean emozioen bidea jorratu behar da:
 - o Gazteak hasieratik proiektuaren parte izan behar dute. Prozesua “haiekin” egin beharko litzateke, ez “haientzat”. Gazteak gertu, inplikaturuz egin behar da.
 - o Erakundeen eta gizartearen inplikazioa behar. Lankidetzaz sortzea nekeza da.
 - o Administrazioak dirua jarri bai, baina bultzatzaile ere izan behar du.
 - o Euskararen alde daudenak kontuan hartu eta komeri da antolatzailea administrazioa bakarrik ez izatea.
- Esperientzien trukaketarako foroak behar (fisikoak, sarekoak...). Kopiatu eta itsatsi, inoiz ez. Egokitu egin behar dira toki bakoitzera. Gainera, esperientzien alderdi negatiboak eta akatsak ere komunikatu behar dira.
- Ekintza norbaiti kopiatzen badiogu, aitortu nondik datorren, nor den sortzailea. Eskertuko dute.

2.5– Jardunaldietako dinamikatik ateratako ideia nagusiak:

- Xirimiri efektua lortu behar dugu
- Gazteetaz ari bagara, gazteekin izan behar du
- Gozamenean oinarritutako jarduera, baina tresna bezala
- Sormena erabat beharrezkoa
- Taldea–kuadrilla–tribua da eragiteko oinarria. Liderren bidez eragin?
- Goxotasuna behar dugu elkarlanean
- Gidaritza talde bat bai... baina nork eta nola sortu?
- Oinarri teoriko eta metodologikoen beharra bai, batez ere egiten denari etekina ateratzeko
- Esperientzien eta ikerketen uztarketa bai
- Adierazle sistema bai, zaila den arren
- Baina naturaltasuna behar dugu: ez antolatuegia, ez ikertuegia...
- Gazte hizkera sustatu behar da, baina gazte hizkera estandar bat...
- Hizkuntzarekiko mezuak landu behar dira, publizistak ekarpen ona egin dezakete, baina laguntza moduan

3–Aurrera begirako ildoen proposamena:

3.1– Sarrera

Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba proiektuarekin jarraitzea begira, proiektuaren arduradunek (Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa Eskola eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioak), *ebete hizkuntza-zerbitzuei* eskatu diote jardunaldietako tailerra dinamizatzeaz gain, aurrera begirako ildo batzuk proposatzea.

Ondorengo orrietan proposamen horiek egiten dira, orain arte proiektuaren inguruan egindakoa abiapuntu eta oinarri hartuz.

Proposamenen helburua proiektu hori bideratzen laguntzea da, hau da, ideia batzuk ematea eta hainbat bide antolatzen laguntzea. Noski, proposamenak besterik ez dira eta, eztabaidatzeaz gain, egoki ikusten direnak garatu egin beharko dira.

Proposamenen abiapuntua

Gazteen artean euskararen erabileran eragitea da helburua. Proiekturako egindako esperientzia eta ikerketen helburua hori da, eta geroztik proiektuaz aritu direnek (jardunaldietan, adibidez) hori izan dute jomuga.

Baina gazteen euskararen erabileran eragiteak oso bide ezberdinak hartu ditzake. Adibidez, hainbat jarduerak jomuga bezala kuadrilletan eragitea dute, baina horrek ez du ziurtatzen, jarduerak arrakasta izan arren, kuadrillatik kanpo euskara gehiago erabiliko dutenik.

Horregatik, ikuspegi zabalago bat hartu behar da, eta gero horren barruan erabaki zein izan daitezkeen esperientziak eta jarduerak. Hau izan daiteke norabidea: gazteek euskara eta gehiago erabiltzeko jokabide aktiboak hartzea. Hau da, beraien eguneroko bizitzan eta harremanetan euskara gero eta gehiago eta gero eta gehiagorekin erabiltzea.

Horri begira, xirimiriaren ideia aproposa izan daiteke: euskara, euskarari buruzko mezuak, erreferenteak... hainbat bideetatik eta hainbat modutara iristaraztea gazteei. Horri begira interbentzio batzuk kuadrillara zuzendu beharko dira, beste batzuk eskola orduz kanpoko jardueretara (aisia, kirola, musika, antzerkia...), komunikabideetara...

Horri begira, hainbat bide landu daitezke. Besteak beste, bost hauek:

- 1.- Euskaldunon komunitatea eta mezuak
- 2.- Interbentzioak
- 3.- Tresnak eskaintzea
- 4.- Elkarlana eta goxotasuna
- 5.- Sormena arlo guztietan

3.2- Euskaldunon komunitatea eta mezuak

Gazteei, euskarara erakartzeko, hau da, euskararekiko jokabide aktiboak hartzeko, nolako mezuak eman behar dizkiegu?

Hasteko, euskaldunon komunitateak ahalik eta mezu koherenteenak eman beharko lituzke, eta askotan ez da horrela izaten.

Gazteek euskararekiko jokabide aktiboak izatea nahi badugu, euskaldun kontzientziatuok ere hori egin beharko genuke, hau da, euskara gero eta gehiago erabiltzeko jokabidea hartu. Onartu beharko genuke ez garela euskaldun erabat koherenteak (gehienok behintzat), hau da, ez dugula euskaraz egiten euskaraz izan daitezkeen harreman guztietan edo euskaraz izan daitezkeen edo ez dakigun harreman guztietan eta, hori onartzetik hasita, bakoitzak bere erritmora gero eta euskara gehiago erabiltzeko jokabidea hartu beharko luke.

Norbera prozesu horretan murgiltzeko tresnak behar ditugu eta, gaur egun, gero eta eskurago ditugu tresna horiek: TELP tailerrek adibidez (*Taller del espai lingüístic persona*), oso tresna aproposak eskaintzen dituzte horretarako. Tresna horien bidez, euskara gero eta gehiago erabiltzea (euskararekiko *militante* izatea) ez da zama bat, gustura egin daitekeen zerbait baizik. Hori da gakoetako bat, euskara gero eta gehiago erabiliz ahalegin horretan gustura sentitzeaz gain, nire buruarekin ere gusturago sentitzea, nahi nukeena (euskaraz bizitzea) eta egiten dudana gero eta koherenteagoak baitira.

Euskaldun kontzientziatuok hori egingo bagenu, gainontzeko euskaldunengan eragina izango genuke, baita gazteengan ere. Azken batean, bide hori garatuta askoz errazagoa izango da publizistengana jotzea eta saldu nahi ditugun mezuak lantzeko laguntza eskatzea eta hori ondo egitea. Aurreko diskurtso eta tresna horiek ez baditugu garatzen, zer eskatu behar diegu publizistei? Orain arte balio ez digun horri beste itxura bat eman eta berdin eskaintzen jarraitzea?

Hau da lehenengo proposamena, beraz. Euskararekiko jokabide aktiboak sustatzera begira, tresna batzuk eskaintzea, hainbatek frogatuak eta euskaldun izatea eta euskara erabiltzea erakargarriagoa egingo dutenak.

3.3– Interbentzioak:

Inork ez du zalantza jartzen beharrezkoak edo, gutxienik, oso lagungarriak direla gazteen euskararen erabileran eragiteko interbentzioak. Interbentzio horiek, ezaugarri hauek gutxienez beharko dituzte:

- Esplizituki eragiteko interbentzioak eskaini daitezke edo xirimiri moduan. Hau da, jarduera batzuk euskararen gaia esplizituki lantzea izan dezakete oinarrian (Kuadrillategi egitasmoak, adibidez) baina euskararen erabilera landu daiteke hori egingo dela esplizitu egin gabe ere (hainbat aisiako edo kiroleko jardueretan euskararen erabilera landuz, adibidez). Bi bideak dira interesgarriak. Bigarrenean gazte askorengan eragin dezakegu baina agian helburu xumeekin, eta lehenengoan berriz gazte gutxiagorengana iritsiko gara, baina helburuak handiagoak izango dira.
- Jarduera guztien oinarrian gozamenak egon behar du. Jarduera horietan gustura aritu behar dute gazteek, euskaraz gustura aritu behar dute. Euskararekin harreman ona izatea lortu behar dugu.
- Erabileran eragiten eraginkorrak izan behar dugu. Zer eta nola egin daitekeen argi izan behar dugu. Horretarako metodologiak garatzea beharrezkoa da, baita adierazleak, neurgailuak eta abar ere. Ttakun Kultur Elkartek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako *Hezitzaileek asko egin dezakete metodologia* oso adibide egokia da.
- Baina ezin da naturaltasuna galdu. Jardueren oinarrian gozamena egotea helburu bat baino tresna bat den moduan, metodologiak eta adierazleak ere tresna bat izan behar dute eta ez helburu bat. Beraz, horiek lantzea eta aplikatzea ere ondo egin beharko da, laguntza bat baino oztopo bat bihurtu ez daitezen: errealitatearen azterketa egiteko tresna sinple eta azkarrak, erabileran eragiteko estrategia malguak...
- Gazteentzako jarduerak antolatzea ez dago gaizki, baina gazteekin antolatzea askoz aproposagoa eta eraginkorragoa izan daiteke, batez ere jardueren arrakastari begira eta benetan gazteen interesetara egokitzen begira. Zer eta nola egin planifikatzerakoan,

gazteen parte-hartzea nola bideratu ere landu beharko da eta, ahal bada, une horretan bertan inplikatzeko da egokiena.

Hauek izan daitezke interbentzioen edo jardueren ezaugarri nagusiak. Oinarriak eta norabidea argi eduki beharko dira eta sortu-frogatu-egokitu-frogatu dinamika erabili beharko da behin eta berriz.

3.4- Tresnak eskaintzea:

Euskal komunitatetik hainbat mezu jasotzeaz gain eta interbentzioen bidez erabileran eragiten saiatzeaz gain, euskara gero eta gehiago erabiltzeko eta euskararekiko jokabide aktiboak izateko tresnak eskaini eta helarazi behar zaizkie gazteei. Ezaugarri ezberdinetako tresnak izango dira eta, besteak beste, hiru hauek garatzea egokia izan daiteke:

- **Gazte hizkera:** Euskarak gazte hizkera berritzeko eta hedatzeko dituen zailtasunak argi daude. Eta gazteek euskara gero eta gehiago erabiltzera begira gazte hizkera aberats bat eskura izateak eta hori aldatzeko eta moldatzeko bideak edukitzeak zenbat lagunduko lukeen ere argi dago. Hori garatzeko bidean sortzen dira zalantzak: Gazte hizkera estandarra bai edo ez? Ez al da kontraesan bat? Baina ez bada horrelako zerbait lantzen zein izan daiteke bidea? Zerbait egin behar dela onartzen du gehiengoak. Beraz, froga batzuk behintzat egin daitezke (edo ikerketaren bat). Hainbat erakunde ari dira gazte hizkeraren edo hizkera informalkaren gaia jorratzen (Urtxintxa, Ttakun, Mihiluze, Mantxut...) eta koordinatutako ahalegin batzuk egin daitezke: hainbat esamolde aukeratzea eta bide ezberdinetatik hedatzen ahalegintzea (xirimiri moduan hau ere: komunikabideak, hezitzaileak...). Izango al luke eraginik? Modu horretako frogan arabera, garatu beharreko bide egokia zein den ikusi ahal izango da edo, gutxienez, eztabaida bideratzeko hainbat esperientzia hartu ahal izango dira oinarri moduan.

- **Ahozotasuna:** Oso gai garrantzitsua da erabilerari dagokionez, baina ikastetxeen lan eremuan sartzen da batez ere. Euskararen irakaskuntzan ahozotasunari eta euskaraz komunikatzeari lehentasuna ematea lortuko balitz, gramatikaren eta zuzentasunaren aurrean, gazteen artean erabilera sustatzerako aurrean oinarrizko bat egina legoke.
- Euskara eta gaztelania edo frantsesa **gatazkan jartzen direnean nola jokatu jakitea:** euskararekiko jokabide aktiboak dituenak, euskara edo erdara hautatzea dagokionean, euskararen aldeko hautua egiten du. Ez da soilik lehenengo hitza euskaraz egitea (horretarako borondatea izan arren askori zaila gertatzen zaion gaia), euskaraz ondo ez dakienarekin nola jokatu jakitea, ulertu arren gaztelaniara jotzen duenarekin nola egin jakitea, ulertzen ez duenari zer eta nola esan jakitea, kritika baten aurrean nola erantzun jakitea, eta abar. Horrelako egoeretan nola jokatu jakiteak konfidantza eta lasaitasuna ematen du eta euskara gero eta gehiago erabiltzeko bidea ematen du. Kasu honetan ere, TELP tailerrek tresna interesgarriak proposatzen dituzte. Tresna horiek hartu eta nori eta nola transmititu landu beharko litzateke.

3.5– Elkarlana eta goxotasuna:

Bide horretan guztian erakundeen arteko elkarlana beharrezkoa da. Jardunaldietan aipatu zen moduan, elkarlan horrek goxotasuna behar du: inplikatura dauden erakundeen arteko konfidantza, norabide berean aritzea, malgutasuna...

Normalean inor ez dago elkarlanaren kontra, baina askotan ez da biderik aurkitzen edo ez da asmatzen elkarlan horretan.

Hainbat proiekturen kasuan asmatu dute bide horretan (herri askotan lortu da udalaren eta hainbat erakunderen arteko elkarlana) eta klabe nagusiak zeintzuk diren aztertzea egokia izan daiteke. Baina argi dago klabe teknikoak baino (funtzioak, organigramak...), klabe emozionalek dutela garrantzia (norabide berean aritzea, elkarlan hori denentzat onuragarria dela ikustea), eta abar.

Beraz, ikerketak egin ahal izango dira eta ondorio batzuk atera baina, batez ere, mezu batzuk landu beharko dira eta batera eta bestera zabaldu (hau ere publizisten laguntzaz?), elkarlan horren onurak erakutsiz eta horretarako pauso zehatzak proposatuz.

3.6– Sormena:

Arlo guztietan sormena beharko dugu. Baina sormena modu positiboan ulertuta. Hau da, askotan sormena baliabide gutxi izatearen ordezeko moduan ikusten da, baina ez luke horrela behar. Benetan eraginkorrak izateko sormena erabili beharko da:

- Mezuak lantzeko eta hedatzeko.
- Jarduera eraginkorrak eta gazteekin batera egindakoak izateko.
- Gazteentzako tresnak garatzeko eta helarazteko.
- Erakundeen arteko elkarlana bideratzeko.
- ...

Sormena erabili ahal izateko, norabidea argi edukitzea da garrantzitsua eta ikuspegi positiboarekin lan egitea. Norabidea argi edukita eta egiten duguna positiboa izango dela benetan sinetsita, baliabide gehiago edo gutxiago, lorpenak handiagoak edo txikiagoak, tresnak garatuagoak edo ahulagoak, sormena erabiltzeko gai izango gara eta gusturago arituko gara.

Norabidea argi dugunez, gazteen artean euskararekiko jokabide aktiboak hedatzea, aurrera begirako ildoak garatzeko sormena erabiltzea ez da zaila, eta oso emankorra izan daiteke.